

ARIKETAK FINANTZAK

FINANTZA EGITURA ETA ANALISIA

ENPRESA EKONOMIA SARRERA T.31

FINANTZA ARIKETAK. 1.1

Enpresa baten egoera ekonomiko-finantzarioaren analisia egin ondoren honako emaitza hauek lortu dira:

Errentagarritasun ekonomikoa: %4

Zorpetze ratioa: 6

Korrontearen ratioa: 1

Finantza errentagarritasuna: %0

Berehalako likidezia ratioa: 0,1

- 1) Baldin badakigu enpresa horrek aurten epe luzean lehiakorra izaten jarraitzeko inbertsio garrantzitsu bat egin behar duela, daukazu informazioaren arabera, arrazoitu zein den finantzazio iturririk aipatua.
- 2) Daukazu informazioaren arabera, arrazoitu hurrengo esaldietatik zein den zuzena:
 - a. Enpresa honek finantzen palanka-efektu positiboa du.
 - b. Zorraren kostua errentagarritasun ekonomikoa baino altuagoa da.
 - c. Enpresa honek galerak ditu.
 - d. Baliabide propioak eta epe luzearako besteren finantzaketa berdina dira.

FINANTZA ARIKETAK 1.2

Enpresa baten egoera balantzetik honako datu hauek lortu ditugu:

- Pasibo ez korrontea: 100.000 €
- Pasibo korrontea: 160.000 €
- Aktibo ez korrontea: 80.000 €
- Aktibo korrontea: 200.000 €

Bestalde, Batez besteko Heltze-Aro finantzarioa negatiboa dela dakigu, hain zuzen ere, 2 hilabetekoa.

- 1) Kalkula ezazu enpresaren epe luzearako kaudimen-ratioa eta emaitza interpretatu. Nolako hazkunde gaitasuna dauka enpresak?
- 2) Kalkula ezazu zorpetze-ratioa eta emaitza interpretatu.
- 3) Kalkula ezazu errotazio-funtza (maniobra-funtza) eta emaitza interpretatu.
- 4) Zer eragin dauka Batez besteko Heltze-Aro finantzarioa negatiboa izateak?

FINANTZA ARIKETAK 1.3

XX enpresak ondorengo datuak aurkezten ditu:

- Aktibo osoa: 200.000€.
- Barne Finantzaketa: Aktibo osoaren balioaren %60.
- Esplotazio salmentak eta sarrerak (interes aurretik): 80.000€.
- Esplotazio erosketak eta gastuak (interes aurretik): 64.000€.
- Kanpo finantzaketaren urteko interes tasa %5-ekoa da.

Ondorengoetatik, arrazoitu zeintzu diren erantzun zuzenak eta okerrak:

- 1) **Enpresaren aktiboan inbertitutako 100€ bakoitzeko, 10€-tako mozkin gordina (interes aurretik) lortzen da.**
- 2) **Jabeek/Bazkideek enpresan jarritako 100€ bakoitzeko, 10€-tako mozkin garbia (interes ondoren) lortzen da.**
- 3) **Enpresaren Finantza Errentagarritasuna %10ekoa da.**

FINANTZA ARIKETAK 1.4

Enpresa baten finantza-ekonomi egiturak ondorengo ezaugarri nagusiak ditu (milaka eurotan adierazitako datuak dira):

- Aktibo ez korrontea: 640.
- Aktibo korrontea: 120.
- Kutxak: 16.
- Ondare Garbia: 310.
- Pasibo korrontea: 160.

Enpresaren Errentagarritasun ekonomikoa %5-ekoa izan dela badakigu eta zorreatatik ordaindutako interesak 27.000€-takoak izan direla, erantzun ondorengo galderei:

- 1) **Kalkula ezazu Errotazio (Maniobra) funtsa eta lortutako emaitza azal ezazu. (0,25 puntu)**
- 2) **Kalkula ezazu epe luzeko kaudimen ratioa eta lortutako emaitza azaldu. (0,2 puntu)**
- 3) **Kalkula ezazu berehalako likidezia ratioa eta lortutako emaitza azaldu. (0,25 puntu)**
- 4) **Kalkula ezazu Finantza Errentagarritasun ratioa eta lortutako emaitza azaldu. (0,25 puntu)**
- 5) **Kalkula ezazu enpresaren finantza balankatzea (palanka efektu finantzarioa) eta lortutako emaitza azaldu. (0,25 puntu)**

FINANTZA ARIKETAK 1.5

Enpresa batek honako datu hauek ditu bere balantzean:

Mozkina interesak kendu ostean = 100.000€.

Zorra = 1.000.000€.

Aktibo osoa = 2.000.000€

Zorpetzearen kostua = %5

Zenbatekoa da enpresa horren errentagarritasun ekonomikoa eta finantza-errentagarritasuna?

FINANTZA ARIKETAK 1.6

Enpresa batek balantzean honako datu hauek erakusten ditu: Baliabide propioak = 2.000.000€. Zorra = 500.000€, horietatik % 60 epe laburrerakoa da eta gainerakoa epe luzerakoa. Aktibo ez korrontea = 1.700.000€. Diruzaintza (erabilgarria edo efektiboa) = 150.000€.

Honako baieztapen hauetatik arrazoitu zein da zuzena eta zein okerra:

- 1) Enpresak epe luzeko kaudimen handia du.
- 2) Enpresak epe luzeko kaudimen ratioa hobetu egin behar luke, izan ere, kaudimenaren igoera beti da gomendagarria.
- 3) Enpresaren zorpetze gaitasuna handia da.
- 4) Enpresa % 5 gehiago zorpetuko balitz, bere kaudimena arriskuan jarriko luke.
- 5) Enpresaren berehalako likidezia baxua da.
- 6) Enpresaren berehalako likidezia altua da, horrek lortutako errentagarritasuna jaitsi dezake.
- 7) Enpresaren pasibo korrontea baxua da, beraz, berehalako likidezia ere baxua da.
- 8) Enpresaren zorpetze maila baxua da, beraz, berehalako likidezia altua da.

FINANTZA ARIKETAK 1.7

| | |
|----------------------------|----------------|
| Aktibo Ez Korrontea | 575.400 |
| Ibilgetu | 1.550 |
| Inmateriala | |
| Ibilgetu Materiala | 158.600 |
| Finantza inbertsioak | 415.250 |
| Aktibo Korrontea | 124.600 |
| Izakinak | 33.100 |
| Bezeroak | 75.300 |
| Kutxazaina | 16.200 |
| AKTIBOA | 700.000 |

| | |
|----------------------------|----------------|
| Ondare Garbia | 279.000 |
| Kapital soziala | 30.000 |
| Erreserbak | 194.400 |
| Ekitaldi Emaitza | 54.600 |
| Pasibo Ez Korrontea | 275.000 |
| Zorrak E./Luz. | 275.000 |
| Pasibo Korrontea | ¿?¿?¿? |
| Zorral E./Lab. | ¿?¿?¿? |
| O.G. + PASIBOA | 700.000 |

Zorraren batzbesteko kostea: %6

Ondorengo Egoera Balantzea duen empresa kontutan hartuta, kalkulatu:

- 1) Enpresaren epe laburreko zorrak.
- 2) Maniobra/Errotazio funtsa edo fondoaren balioa.
- 3) Epe luzeko kaudimen ratioa.
- 4) Zorpetze ratioa.
- 5) Zirkulatzailen ratioa.
- 6) Berehalako likidezia ratioa.
- 7) Errentagarritasun ekonomikoa.
- 8) Errentagarritasun finantzarioa.

FINANTZA ARIKETAK 1.8

Moritel Sozietate Kooperatiboa 2016 urtean zehar sortu zen bere 3 bazkideetako bakoitzak (langile bakarrak direnak) ezarritako 12.000€kin eta 10.000€ zenbatekoa duten 3 urtetara bi maileguren bidez (maileguren kostua %8a da). Maileguak epemugan, 2020 urtean, osotara ordainduko dira. Enpresak 2016 urtean zehar ez du inolako beste erako besteen finantzaketa-iturririk erabili. 2017ko urtarrilean enpresaren egoera bere funtzionamendu lehenengo urtean zehar berrikustea pentsatzen dute, interesen osteko mozkin garbia 12.000€koa izan baita (lehenengo urte honetan ez da dibidendurik banatu, mozkina guztira erreserbetara bideratu da).

2016ko abenduaren amaieran metatutako aktiboa guztira 68.000€koa da. Eraketa berriko enpresa honek jarduera bakarrean dihardu, klimatizazio-instalazioen mantentze-lanetan merkataritza-lokaletan eta enpresa-parkeetarako. Kalkula itzau ondorengo kontzeptuak:

- 1) Moritelen ondare garbia bere lehenengo urtea bukatutakoan (abenduak 2016):
- 2) 2016ko errentagarritasun ekonomikoa.
- 3) 2016 urtean lortutako finantza-errentagarritasuna.